



Espediente zbkia: X18043

1. Zenbakiduneko kartazalaren irekiera akta (dokumentazio administratiboa)

Kontratuaren objektua: Foru Kontratazioen Zentralaren bidez datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapen zerbitzua kontratatzeko esparru akordioa

BILERARI BURUZKO DATUAK:

- Eguna: 2019/04/08
- Ordua: 13:00
- Lekua: Foru Jauregia 2.3 gela.

BILDUTAKOAK

FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA:

MAHAIBURUA: Zerbitzu Orokorretako burua, Francisco José Pérez Domingo.

1. **BOKALA:** Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko idazkari teknikoa, Juan José de Pedro Alonso.
 2. **BOKALA:** Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretzako AOT, Alazne Arzadun Roca, zerbitzuburuaren ordezkapenean.
 3. **BOKALA:** Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko AOT, Alicia Etxeberria Urria.
- IDAZKARIA:** Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko AOT, Mikel Ulazia Etxabe.

Foru Kontratazioen Zentrala baliozko eratu ondoren, bilerari hasiera eman zaio.

Erreferentziako espedientean telematikoki eskaintzak aurkezteko aldiari izandako inguruabarren berri ematen zaie Foru Kontratazioen Zentrala osatzen duten pertsonari, inguruabar horiek eragina izan baitzuten proposamenen bidalketan.

Espediente horri dagokionez, eskaintzak aurkezteko azken eguna 2019ko martxoaren 28a izan zen (arratsaldeko 16:00etan), eta epearen barruan 7 eskaintza jaso ziren, Plataformako Lizitazio Elektronikoko Sistemaren bitartez zuzen bidalitakoak.

Beste proposamen baten kasuan arazoak izan ziren onartzeko; izan ere, lizitazio elektronikoko aplikazioak enpresaren lizitazio ziurtapenaren identifikaziorako balio bat hartzeko saioa egiten zuen, baina ez zuen uzten dokumentazioa sinatzen. Arazoa sortu da aldaketa bat izan delako CAMERFIRMAREN ziurtapenen politikan eta Eusko Jaurlaritzaren aplikazio informazioak ez zuelako eguneratu.



Beraz, enpresa honen eskaintzaren harreran sortu den akatsak ez du zerikusirik lizitatuarekin; izan ere, aplikazioaren bidez egiten den kontrola da, eta transakzio uneetan ez zuen behar bezala funtzionatu, ziurtapenen politika ez zegoelako eguneratuta.

Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoen arduradunaren aholkuari jarraituz, aparteko mekanismo bat jarri da abian enpresa horren eskaintza jaso ahal izateko.

Halaber, arrastoa dago ere VADILLO ASESORES SOLUCIONES JURÍDICAS A EMPRESAS SL enpresak dokumentazioa aurkezteko saioa egin duela aurkezpen epea amaitu baino pixka bat lehenago, Eusko Jaurlaritzak ziurtatutakoaren arabera.

Kasu honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoen arduradunek honako hau adierazi dute apirilaren 2an emandako txostenean:

«No se observa ningún error de la aplicación durante el intervalo temporal transcurrido desde ese momento hasta el final del plazo de presentación de las ofertas»; halaber, adierazi dute “Ante la pérdida de las trazas de la actividad, solo podemos presumir que el intento de ofertar de VADILLO ASESORES (que no la intención de UTE VADILLO – DEUSTO SISTEMAS) se vio frustrado por una configuración inadecuada del equipo oca el que se estaba operando para poder licitar.”

(...)

“La relación fáctica descrita refleja que se intenta por la empresa la remisión de la oferta cerca de finalizar el plazo de presentación de ofertas, es decir, muy justo de tiempo y con poca capacidad de reacción ante cualquier incidencia; además de no utilizar los mecanismos existentes para remitir ofertas de intenciones de UTE.”

Aurrekariak kontutan hartuta txostenak ondorioztatzen du:

“Por lo expuesto, por este responsable se considera que no ha habido un mal funcionamiento de los sistemas informáticos ni una actuación de apoyo a los licitadores o falta de la misma que haya dificultado o impedido la normal remisión de la oferta de la UTE VADILLO-DEUSTO SISTEMAS, ni la intentada remisión de VADILLO ASESORES SOLUCIONES JURÍDICAS A EMPRESAS, S.L.”

Bestalde, eskaintza aurkezteko saiakera egin dutenen partetik idatzi bat jaso da pasa den apirilaren 3an. Idatzian laburbilduz ondorengo argudiatzen dute:

“debemos entender que no hay problemas de configuración en el equipo local utilizado, y el hecho de que concurra una pérdida de trazabilidad de la actividad manifestada por esta parte, no se puede achacar ni a la configuración del equipo ni al conocimiento del uso de la herramienta por el usuario.

Es por ello, que el error o deficiencia técnica cualesquiera que ha imposibilitado al usuario la conclusión del proceso de firma y envío de la propuesta ha operado al margen y debe radicar en los propios medios técnicos utilizados por el órgano contratante.”



Egitateak eta emandako iritziak kontutan hartuta, Foru Kontratazioen Zentralaren ustetan ez dagokio organu honi orain xehetasun teknikoetan sartzea. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, bere momentuan, erabaki zuen onartzea Foru Aldundian izapidetutako kontratazio publikoko prozeduretan erabiltzea Eusko Jaurlaritzak komunikazio elektronikoa ahalbidetzeko garatu dituen tresnak, horien artean parte hartzeko eskabideak eta eskaintzak aurkeztekoak.

Ondorioz, X18043 espedienteko kontratazio organoa ere lizitazio elektronikoa ahalbidertzeko Jaurlaritzaren baliabide teknologikoez baliatu da, eta zentzu honetan, bai organo horri, naiz kasu honetan Foru Kontratazioen Zentralari, baliabide horien gain ardura dutenek alor teknikoan diotenera egotea besterik ez dagokie. Beraz, Eusko Jaurlaritzak adierazitakoa kontutan hartuz, ez zela egokitzat jotzen aparteko mekanismorik gaitzea azken eskaintza hori jasotzeko, aurkeztutako eskaintzen zerrenda ondorengoa litzateke:

- ALTIA CONSULTORES, S.A
- NEXTEL, S.A
- ALCATRAZ SOLUTIONS SL
- TICDATUM S.L.
- BSK LEGAL & FISCAL ASOCIADOS SLP
- DAYNTIC LEGAL S.L. -
- PKF ATTEST ITC, S.L.
- P3RSEUS CIBERSEGURIDAD, S.L.

1.go gutunazalak (dokumentazio administratiboa) ireki dira, eta zortzi enpresek aurkeztutako dokumentazioa egokia dela ikusi da.

Eta horrela amaitu da egintza.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilerari amaiera eman zaio, eta nik Idazkari izanik akta jaso dut mahaiburuaren oniritziarekin.

MAHAIBURUA

IDAZKARIA

Francisco José Pérez Domingo



Mikel Ulazia Etxabe

